

## **SARRERA**

Guk sortutako proiektua aplikazio bat da. Mugikorrean bertan eduki dezakezu aplikazio hori eta oso erabilgarria da gure egunerokoan. Bertan, nahi ditugun gaietarako buruzko informazioa lor dezakegu. Horretarako, jakin mina sorrarazten diguten objektu edota gauzei argazki sinple bat atera besterik ez duzu egin behar eta jarraian, horri buruzko informazio guztia edukiko duzu. Hala nola, pertsonaia famatuena, animalia, zuhaitzena, eraikinena...

Gainera, pertsona bakoitzak aplikazioan bilaturiko informazioa karpeta kolektibo moduko batean gordetzen da eta karpeta hori aplikazioa duen edonori azaltzen zaio. Ondoren, karpetan "jokatu" botoila sakatu eta galdera batzuk daude, non erantzuna, (A, B, C) letrei sakatuz erantzun beharko duzun. Baldin eta zuzena bada, berdez agertuko zaizu eta okerra bada, gorriz. Irabazten duzun bakoitzeko, eta erantzuten duzun denboraren arabera, puntuak gehitzen joango zaizkizu. Irabazlearen izena, Instagrameko kontuan publikatuko dugu, hilabete bakoitzaren bukaeran. Irabazleari, sagardotegian afari goxo bat oparituko zaio, bi pertsonentzako.

Proiektu hau sortzea erabaki dugu, zenbait egoeren aurrean beharra sentiarazi baitugu. Alegia, askotan gerta izan zaigu zerbaiti buruzko informazioa lortu nahi izana eta lortu gabe gelditzea edota jakin gabe geratu izana web guneak motel dabiltzalako edo wifi-a mantxo dijoalako.

Enpresaren izen giza Collide aukeratu dugu, oso izen berezia baita guretzako; izan ere, oraingoz, enpresa osatzen dugunak, Collide izenako taberna batean ezagutu ginen. Enpresaren informazio gehiago eduki nahi baduzu, jarrai ezazu gure web orria irakurtzen eta txunditurik geratuko zara! Ziur gaude!